

17. FITXA GIPUZKOA - Bizikleta-bideen tokiko sarea garatzeko eta bizikletetarako azpiegiturak erosi eta instalatzeko udalentsako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizikleta-bideen tokiko sarea garatzeko eta bizikletetarako azpiegiturak erosi eta instalatzeko udalentsako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia.](#)

Eremuak: Jasangarritasuna.

Zenbatekoa: 800.000 €.

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/24.

Laburpena

Deialdi honen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei bizikleta-bideen tokiko sarea garatzeko eta bizikletetarako azpiegiturak erosi eta instalatzeko dirulaguntzak ematea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Planean aurreikusitako bizikleta-bideen tokiko sarearen garapena, bai eta Gipuzkoako udal plangintzan aurreikusitako izaera bereko beste bide batzuen ere.**
 - Bizikleta eta oinezkoentzako bideak edo soilik bizikletentzakoak eraikitze eta hobetzeko obrak egitea, betiere tokiko sarearen parte badira, eta 2024an hasi eta urte 2024ko urriaren 31 baino lehen bukatzea aurreikusten bada.
 - Bizikleta bideak eta oinezkoentzako bideak edo soilik bizikletentzakoak eraikitze eta hobetzeko obraren proiektu teknikoak idaztea, betiere tokiko sarearen parte badira, eta euren aurkezpena eta behin betiko onespena 2024ko urriaren 31 baino lehen aurreikusten bada.
- Bizikletentzako azpiegiturak erosi, instalatu eta seinaleztatzea:**
 - Honako mota hauetako bateko bizikletentzako erabilera publikoko aparkalekuak (ikus zehaztapenak oinarrietan):

- a) Inbertitutako U motako edo zirkularrak diren aparkaleku modulu finkoak, hirigunean sabaiean edo barruko espazioetan instalatzeko.
 - b) Aparkatzeko modulu finko estaliak, kalean jartzeko.
 - c) Bizikletentzako kontsignak eta etxolak.
 - d) Aparkatzeko modulu eramangarriak.
- 2.2. Bizikletak autokonpontzeko eta/edo puzteko azpiegiturak erostea eta jendeak doan erabili ditzan bide publikoan edo eraikin publikoetan jartzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko den jarduera ezingo da 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitakoa izan, eta 2024ko urriaren 31rako gauzatu eta zuritu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Tokiko sarea garatzeko jarduketak: Udal bakoitzari gehienez ere 100.000 euroko dirulaguntza emango zaio tokiko sarea garatzeko, eta 15.000 eurokoa bizikleta bideak eraikitze eta hobetzeko proiektu teknikoak idazteko.

Bizikletentzako azpiegiturak erosi eta instalatzea: dirulaguntzaren zenbatekoa honako irizpide hauen arabera eta gehieneko kopuru hauengatik banatuko da

- Inbertitutako U motako edo zirkularrak diren aparkaleku modulu finkoak: 200 euro 8 bizikletentzako 4 euskarriko modulu bakoitzeko.
- Aparkatzeko modulu finko estaliak: 1.500 euro 10 bizikletentzako 5 euskarriko modulu bakoitzeko.
- Bizikletentzako kontsignak eta etxolak: 1.500 euro kontsigna edo etxola bakoitzeko, gutxienez 5 bizikleta aparkatzeko.
- Aparkatzeko modulu eramangarriak: 100 euro modulu bakoitzeko, gutxienez 9 bizikleta aparkatzeko. — Bizikletak autokonpontzeko azpiegiturak: 300 euro ekipo bakoitzeko.
- Bizikletak puzteko azpiegiturak: 150 euro ekipo bakoitzeko.

Udal bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 7.500 € izango da.

Intereseko beste alderdi batzuk

Udalerrri bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu beharko du eta bertan diruz lagundu nahi diren jarduketa guztiak sartuko dira.

5.000 biztanle arteko udalerrietako udalek, administrazio eraginkortasuneko arrazoiengatik egokitzat jotzen badute, mugakide diren beste udal batzuekin lankidetzan, bizikleta bideen tokiko sarea garatzeko jarduketa elkarrekin egitea eskatu ahal izango dute, eta, horretarako, eskaera bakarra aurkeztu beharko dute guztien artean.